


GABARRA SOZIALA

Gabarra baliatuko dugu, ikur bat delako baliatu ere, gure komunitateko 140 emakume gonbidatzeko, haiek ere merezi baitute aitortzen Euskal Herriko gizarteari eta kulturari egiten dioten ekarpenarengatik. Agerian utzi nahi ditugu erakundeetatik bertatik genero-diskriminazioa eragiteko dauden mekanismo subliminalak.

Emakumeen aurkako erasoei buruzko praktika artistikoak



Gabarraren sinbolismo soziala.

Emakumeon lorpenak **EZ AITORTZEA** ere **BIOLENTZIA ESTRUKTURALA** da.



Anselmo Gineak margotutako "Zirga"

A PLATAFORMA

ARTEAREN ETA KULTURAREN SEKTOREAN DIHARDUGUNON
KOLEKTIBOA. EUSKAL HERRIKO ARTISTAK, KULTURA KUDEATZAILEAK,
HISTORIAGILEAK...



A *Plataformak* berdintasun-legeak bete daitezela jagoteaz gain, behatzen du nola emakumeek arte- eta kultura-sisteman egiten dugun lanaren aitortpena neurri desberdin batekin neurtzen den, eta egoera hori salatzen du. Artearen eta ikusizko kulturaren eremuak garrantzitsuak dira imajinarioak osatzeko, eta beroiek iraunarazteko edo, aitzitik, zalantzan jartzeko. Horregatik, hain zuzen, artean eta kulturaren ikuspegi feminista txertatu ezean, diskurtso berriak izateko aukera kentzen zaio gizarteari, hau da, aberastasun eta dibertsitate osoa barne hartuta, gizarte justuagoa eta toleranteagoa lortzeko bideak urratzen dituzten diskurtsorik gabe.

Sozialki, **gabarraren ikurra** txuri-gorrien garaipenei lotu zaie beti (berriro ere gizonezkoenaren aitortpen soziala). Baina ezin dugu ahaztu emakumeen Athletic-ak guztira 4 liga-titulu lortu zituela, 2002-03, 2003-04, 2004-05 eta 2006-07ko denboraldietan, eta inori ez zitzaiola bururatu gabarra ateratzea nesken omenez. Gauza bera gertatzen da Euskal Autonomia Erkidegoko zentroetan eta museoetan: Arte Ederretako fakultateak neskez josita dauden arren (ikasleen % 70), museoetan gutxien-gutxiengoa dira erakusketak egiterako orduan (%10-15). Eta berdin gertatzen da begiratzen ditugun arlo guztietan. Gure gizartean, emakumeon lidergo-falta eta defizit larria dago emakumeon eskubideen errespetuari dagokionez, eta bi faktore horiek eragina dute emakumeon aurkako biolentzian.

Gabarrak historia duten ontziak dira, Bizkaian XIX. mendearen amaieran hasitako industrializazio-prozesuari lotuak. Ontzi horiek ezinbestekoak bilakatu ziren lurraldearen aberastasuna lortzeko. Zirgez tiraka eginda, **emakumeek** arrastaka mugiarazten zituzten gabarrak, zeinetan meatzari-zonako mendietan ateratako burdina-

minerala eroaten baitzen fabriketara eta Labe Garaietara, Nerbioi ibaiaren ezkerraldera.

Oso lanbide gogorra bazen ere, ez zuten gizon mardulek egiten, emakume zirgariak baizik. Zirgari izena zirgatik dator, hain zuzen. Izan ere, XIX. mendean, senarrak gerra karlistan borrokatzen ziren bitartean, emakume zirgariak aurrera ateratzen zuten familia, gabarrak arrastaka eramanda kostaraino. Hantxe ibiltzen ziren, Abratik Bilboko Areataraino, lan hura egiten, pertsonentzat baino zamabereentzat egokiagoa zena.

Lan hori funtsezkoa zen itsasontziek ibaiaren barru alderantz aurrera egin ahal izateko. Emakumeek gorputzaren inguruan lotzen zuten zirga, uhal baten bidez. Normalean, launaka joaten ziren.



Bilboko prentsa oso kritiko agertu zen lan gogor horren aurrean, baina, aldi berean justifikatu egiten zuen, argudiatuz itsasontziak ezin zirela itsasadarrean sartu oztopo batzuegatik, esaterako, Portugaleteko barrarengatik, eta, horren ondorioz, gabarrak erabili behar zirela salgaiak garraiatzeko.


Garai hartako lan-baldintzak eskasak ziren: emakumeek ez zuten inongo sindikaturen babesik, ezta inolako pribilegiarik ere. Gizonak nasetan egiten zuten zama-lana, ordea, araututa zegoen.

Emakumeen ordez txandaka idiak baliatzea ere otu zitzairen, baina garestiago ateratzen omen zen.

Gabarrak zenbait lekutatik abiatzen ziren. Minerala eroaten zutenek Olabeagaruntz jotzen zuten, eta Zorrotzaruntz, berriz, dinamita garraiatzen zutenek. Azken horiek, beren kargaren arriskuaz ohartarazteko, bandera gorria eramaten zuten (etorkizunean etorri zitzaienaren moduko iragarpen bat dirudi).

Garrantzitsua iruditzen zaigu, beraz, gabarra baliatzea emakumeon arrakastak sozialki aitortu ez izana irudikatzen.

EKINTZA-PROPOSAMENA



Alde batetik, A plataformako kideok begiratzten dugu ea berdintasun-legeak betetzen diren ala ez, hau da, **arbitro gisa** dihardugu, eta, beste batetik, **gabarra** aukeratu dugu gure ekintzaren protagonista bezala, lorpenak aitortzeko ikur bat delako. Bi gaiek kirol-mundua ekartzen digutenez gogora, futbola, metafora hau erabiliko dugu: *“Berdintasunaren partidan, txartel gorria”*

Ekintza kolektiboa egingo dugu, gabarrak irudikatzen dituen istorio desberdinak batuz, gabarra gure gizarteak lorpenak aitortzeko darabilen elementu bat delako, errealitateak ikustarazten dituen.

Historikoki emakumeok tiraka ibili gara, gizartearen pisu astuna arrastaka eramanez: biolentzia, desberdintasuna, ikusezintasuna, diskriminazioa...

Horregatik, 2016ko azaroaren 25ean, guk gabarra sinboliko bat pleitatuko dugu: Txinbito. Eta hantxe joango gara, itsasadarretik, 140 emakume, Portugaletetik Bilbora, egunerokoan zenbait arlotan (kirolean, arlo kulturean, sozialean, eta abar...) garaile garen 140 emakume.

Plataforma kide bakoitzak 10 pertsona proposatuko ditu: mota guztietako profesionalak, etxeko langileak, musikariak, arkitektoak...Parte hartzera gonbidatuko dugu jendea, eta txartel gorria erakutsiko diogu sistemari, desberdintasuna eta diskriminazioa iraunarazten jarraitzeagatik.

Hala, azaroaren 25ean, arratsaldeko 17:30ean, Portugaletetik abiatuko gara, Txinbiton, eta hantxe joango gara itsasadarretik Bilboraino. Bilbon, egun horretarako Bizkaiko talde feministak deitutako manifestazioarekin bat egingo dugu. Ia-ia benetako gabarran joatea bezalakoa izango da. Amarra-portura jo dugu dagoeneko, eta Txinbito erreserbatu dugu 140 lagunentzat.

2016ko ekainaren 21ean eginiko asanbladan **A plataformak** erabaki zuen azaroaren 25eko manifestazioaren antolatzaileei ekintzaren berri ematea (Bizkaiko koordinadora feminista), guri laguntzen eskatzeko eta bi talderen lana koordinatzeko, bai eta gabarran etortzera gonbidatzeko ere.

Gabarra ekintza sozialean eta kulturean lan egiten duten emakumeez betetzea planteatzen dugu, emakumeon lanaren aitortpen gisa. Athletic-eko neskak ere gonbidatu nahi ditugu.

Mareagora, Itsas Museoraino helduko gara Txinbiton. Lehorreratu ostean, txartel gorriak banatuko ditugu eta azaroaren 25eko manifestazio ofizialarekin bat egin arte txartelok erakutsiz ibiliko gara Bilboko kaleetan, bozeramaileek megafonoetatik kontsignak oihukatzen dituzten bitartean.

Dagoneko Eva Ferreira Athletic-eko jokalaria ohiarekin izan gara, eta parte hartzeko prest agertu da. Beste emakume futbol-jokalaria batzuegana ere jo dugu jada.

Ohorezko gonbidapen batzuk egingo ditugu. Horretarako, zerrenda bat osatzen ari gara, omenaldia merezi dutenen emakumeen izenez.

Dossier hau koordinadora feministari helaraziko diogu, irailaren hasieran haiekin elkartzeko, ekintzaz eta manifestazioaren ibilbideaz hitz egiteko, eta harekin bat egin ahal izateko.

Ekintzaren nondik norakoak:

- 🚩 Egin gabarrako kideen **zerrenda**. Gutariko bakoitzak 10 emakumerekin kontaktatu dezake, eta egiaztatu parte hartuko dutela. Hori egin ondoren, mezu bana bidaliko diogu plataforma osatzen duen zerrenda-kide guztiei. Ordenari jarraikiz gordeko zaie lekua gabarran, gehienez 140 izan arte.
- 🚩 **Azaroaren 25ean, 17:30ean Portugaleteko kaian** geratu (Kanilla pasealekua). Gabarra arratsaldeko 18:00etan abiatuko da handik.
- 🚩 **140 txaleko eta 1500 txartel gorri** banatuko ditugu.
- 🚩 Bengalak ere banatuko ditugu, “gabarra soziala” ikustarazteko, arratsaldea iluna badago, Txinbitotik pizteko, bai eta bandera fosforeszenteak, megafonoak...
- 🚩 Grabazio bat egingo dugu, non emakumeen lekukoak jasoko baitigu, bideo-selfiak...Hori guztia, girotzen hasteko, azaroan zehar.
- 🚩 Mamiki konpartsari eskatuko diogu itsasontzian sartzeko danborrak joaz.
- 🚩 **Itsas Museoan lehorreratu, 18:30ak aldera**, eta paseatzen joan **Azaroaren 25eko manifestazioraino**. Txartel gorriak erakutsiz eta ibiliko gara, eta megafoniak lagunduta, kantu kantari.

Talde parte-hartzaileek ekintza positibo hau babesten dute, ideia honetatik abiatuta: gizartea aldatzen hasteko zenbait ekintza egin daiteke, eta horietariko bat da, hain zuzen, erakundeek jendaurrean aitortzea emakumeon lorpenak.

Ekintzarako dei bat da guretzat: berdintasun eta justizia politikak egiteko eta gizarteak behingoz emakumeak errespetatzeko deia, hain zuzen. Ekintza honekin bat egingo dugu, beraz, 25eko azaroko mobilizazioekin, biolentzia sexisten irakurketa askotarikoa eta zeharkakoa sortuz, ikuspuntu horrexekin ezabatu behar baita biolentzia hori errotik eta maila guztietan.

Bilbao, 2016ko irailaren 7an

A PLATAFORMA



plataforma